

RUTH MARTIN APEZETXEA GOGOAN

**Ruth Martin Apezetxea
(Kulturgintzako langilea)**

“Soy una obrera de la cultura”, esaten omen zuen Pepa Flores *Marisolek*, eta esaldi hori ezin hobea da Ruth Martin deskribatzeko. Kulturgintzako hainbat eta hainbat arlotan jarduten ikusi dugu denok, bai zuzeneko emanaldietan (musikaria, aktorea, kantaria...), bai besteei irakasten (antzerki-irakaslea), bai besteen lana aurrera eramaten laguntzen (zuzendari artistikoa). Zenbatetan ibiliko ote zen Hernaniko kaleetan gora eta behe-
ra txistuarekin; zenbatetan, hango eta hemengo oholtzetan, antzerki-tailerrak ematen, aktore-lanetan edo kantuan (Ozenki abesbatzan); zenbatetan, Preludioarekin lotutako kontuetan eta beste hainbat ekitalditan. Horrez gain, ateratzen zuen denbora etxean idazten aritzeko, hitzen sukaldean, bere testuak sortzen. Beti umore ona eta bizipoza transmititzen, irribarre goxo eta alai batekin.

Zaila da Ruthek egindako guztia artikulu batean biltzea, eta ausartegia izango litzateke pertsona batek bakarrik ahalegin hori egitea, ekimen askotan ibili baitzen, denetan arrasto iraunkorra utzita. Hori dela eta, hemen, Ruthek landutako zenbait esparruri buruzko zertzelada xume batzuk ematen saiatu gara zenbaiten artean. Ea merezi duen omenaldia egiten asmatzen dugun.

Baina hasi baino lehen, mila esker Ruth Martin, hernaniarron izenean.

RUTH, TXISTULARIA.

2019ko maiatza.

Udaberriko kontzertua dugu igandean, Ruth zuzendari hasi denetik lehenbizikoa, urtarrilean hartu baitzuen Patxiren erreleboa. Kontzertu ibiltaria egitea bururatu zaio: jendea non, hara joango gara gu, txistuak, atrilak, aulkiak eta tramankulu guztiak hartuta, Charlie Rivelen pare. Gaur izan dugu azkeneko entsaioa, eta marrazki batzuekin azaldu zaigu, doinuak girotzeko. Marrazkietako batean, euli bat ageri zen, eta zomorroaren zurrunbiloan pentsatzeko esan digu, “*Eltxo pieza*” izeneko doinua jo bitartean. Beste batean, Tirolekin lotutako zerbait



zegoen, “*Austriar bi doinu*” baita kontzertuko beste pieza bat. Eskerrak ez zaiola okurritu norbaiti “*Yodelo, delo, liri, yodelo, delo, liri*” kantatzen hasteko eskatzea. Badu sormena Ruthek, eta burua dantzan darabil beti, zer asmatu.

Azkenean, emanaldi polita atera zaigu. Eguraldi ederra izan dugu, eta hortxe ibili gara kalean gora, kalean beheara. Harriduraz begiratu gaituzte kalean, karga-karga eginda gindoazela ikustean. Plazan, Plaza Berri ondoan, Tilosetako eskaileren parean eta Tilosetan bertan egin ditugu geldialdiak, toki bakoitzean bizpahiru pieza jotzeko. Batzuk ikusminez geratu zaizkigu entzun-begira, eta beste batzuek, berriz, berea egiten jarraitu dute, berriketan edo po-



2019ko San Joan eguneko kontzertua (Argazkia: KRONIKA).

teatzen, kasu handirik egin gabe. Ohiko erreakzioak igande eguerdiko aperitiboaren orduan. Gu gure helburua betetzen saiatu gara: ondo pasatzea eta jendeari ondo pasaraztea. Ez da askoz gehiago behar denbora-tarte atsegin bat izateko. Ea zer bururatzen zaion hurrengo emanaldietarako.

Gazte-gaztetatik hasi zen Ruth txistulari. Hasieran, akordeoia eta txistua ikasten ibili zen, biak batera, baina azkenean, txistuarekin jarraitzea erabaki zuen, eta hala jardun zuen bizitza osoan. Beste ezer baino lehenago, txistularia izan zela zioen. Berak azaldu zuen txistuarekiko zuen atxikimendua, Hernaniko Kronikak egindako *“Goizetik Hernaniko Txistulari Bandak zuzendari berria du”* erreportajea (1).

1990eko hamarkadaren hasieran sartu zen Ruth Hernaniko Udal txistulari-bandan, Madrilen ikasten zebilen garaian. 2019an, zuzendari-lanetan hasi zen, Patxi Apezetxearen erreleboa hartuta. Urte horretan, lehenago aipatutako kontzertu ibiltariak gain, Hernani eta inguruko txistulariok San Joan egunean ematen dugun kontzertuan, kolaborazio berezia egin genuen Musika Eskolako albokari-taldearekin (Haritz Ezeizak sortutako eta moldatutako 3 pieza jo genituen, eta Alan Griffinek sortutako eta Haritzek moldatutako beste doinu bat). Gabonetako kontzertua, berriz, gure taldeko kolaboratzaile eta la-

gun Juan Jose Arregiren omenez egin genuen, hark sortutako eta Ruthek moldatutako doinuekin, eta Aitor Huiziren (biolina) eta Iker de Las Herasen (pianoa) laguntzarekin (2).

RUTH, ANTZEZLEA ETA ANTZERKI-IRAKASLEA.

2021eko urria.

2010-2011 ikasturtea, Hernaniko institutuan. Batxilergoko 1. mailan, antzerki-eskola genuen asteartean, bazkalondan, hiru eta erdietan. Ez da ordutegirik onena, baina esango nuke gogotsu joaten ginela eskola horietara, batere perezarik gabe. Ruth genuen irakasle, eta ikasturte bukaerako emanaldiari begira egin genituen urte osoko saioak. *“Horrelakoak bagara”* izan zen, azkenean, emanaldiaren izenburua. Gutako batzuk zientzietako ikasleak ginen eta DNA izan zen, nolabait, urteko lanaren haria: zergatik gara garen modukoak?

Aurreneko asteetan, nolabaiteko tanteoa egin genuen, elkar ezagutzen aritu ginen ikasleok eta irakaslea. Gero, pixkanaka, neurrira egokitutako pertsonaiak prestatu zituen Ruthek gutako bakoitzarentzat, norberaren ezaugarrien arabera. Bati komisarioarena egitea tokatu zitzaion, noizbait *“Me voy a comer un donuts, porque soy un comisario”*.

1.-https://kronika.eus/komunitatea/libe-murua-masid_549/1570465425726-goizetik-hernaniko-txistulari-bandak-zuzendari-berria-du.

2.- Esteka honetan ikus daiteke kontzertu hori: <https://www.youtube.com/watch?v=keUVZnTdD0o>. Kontzertu horretan, Ruthek, Aitor Huizik eta Iker de Las Herasek “Eguberri Giroa” doinua jo zuten talde txikian (bideoan, 27:15etik aurrera dago pieza hori).

americano” esan zuelako. Beste bat Eduardo Punset imitatzen ibiltzen zen, eta noski, zientzialari berezi horren antzeko pertsonaia egokitu zitzaion. Beste bat *teatrera* hutsa zen, eta hildako baten papera egin behar izan zuen, purrustaka ibili bazen ere. Eta lotsatienentzat ere, aurkitu zuen haiek eroso egiteko moduko zerbait. *“Al vuelo”* harrapatzen zituen Ruthek horrelako detaileak, eta gidoiak prestatzeko erabiltzen zituen.

Klaseak amaitzeko, musika jartzen zigun, lasaitzeko. Tarteka-marteka guk geuk proposatzen genuen zer entzun, baina berak Ismail Lo-ren *“Tajabone”* abestia jartzen zuen sarritan. Abesti bat gogoko zue-nean, behin eta berriz entzutea gustatzen zitzaion.

Hainbat sketch egin genituen ikasturtean, eta horiekin, urte-amaierako emanaldia osatu genuen. Gustura ibili ginen oholtzan, eta bukatzean, lore-sorta bat jasotzera ager zedin lortu genuen. Hori ez omen zen batere erraza.

Segur aski, DNAk markatuko du, neurri handi batean zer eta nolakoak garen. Baina bizitzan bada gugan eragin handia izaten duen jendea, eta bitxia bada ere, ikasturte hartan, antzerki-irakasle batek arrasto iraunkorra utzi zigun Batxilergoko ikasle batzuei.

Zientzietako Batxilergoa egin arren, azkenean, institutuko ikasketak bukatu ondoren, arte eszenikoen bidea hartzea erabaki zuen, eta hortxe joan zen Madrilera, arlo horretako ikasketak egitera. Gerora, bizitzan, esparru horretan jardun zuen gehienbat, irakasle-lanetan batez ere, baina aktore-lanak ere egin zituen, eta zuzendaritza artistikoko lanak ere bai.

Irakasle-lanei dagokienez, haur, gazte eta helduentzako antzerki-tailer ugari eman zituen. Lan-ibilbidean, Zurriola ikastolan hasi zen, txistu-irakasle, eta antzerki-irakasle izan zen Donostiako Ibai ikastolan, Urumea ikastolan eta Hernaniko institutuan, bai eta Biterin emandako tailerretan ere.

Aktore-lanetan ere ibili zen. Esate baterako, *Goenkale* telesailan, pertsonaia gehien antzeztu zituen hernaniarra izan zen, lau pertsonaia egin zituen-eta garai desberdinetan. Lehenengoan, *Alicia* izan zen, lagun bati bere haurraren aita izan zezan eskatzen zion emakumea; bigarrenean, *Maite*, protagonista baten erizaina; hirugarrenean, emagaldutako bat, eta azkenean, protagonista baten hildako ama gaztea zenean.

Antzerkian, Hernaniko *Txis Pun* taldean aritu zen, herriko lagunekin (Nerea Alzaga, Arantxa Artola, Ainhoa Garcia, Luix Intxauspe, Xabi Rodriguez eta Astigarragako Ramontxo), performanceak han-hemen egiten. Adibidez, *“Mamá quiero ser artista”* izeneko saio bat izan zuten Molotoff Irratian. Horrez gain, Maite Agirrereren *Eta Maria, hiru aldiz amapola, Maria* (1997) antzezlanean parte hartu zuen, eta Hernanirekin lotuta, berriz, Kantuz Abesbatza-

ren ekimenez plazaratutako *Tangoka* ikuskizunean (2002; Javier Zubimendik idatzi zuen argumentua). Arrakasta handiko lana izan zen *Tangoka* herrian, Biteriko aretoa lau egunez betetzea lortu baitzuten. 100 lagun inguruk hartu zuten parte obra horretan, hainbat taldetakoak (Kantuz, Doinu Zale, Ttarla...), gehienak hernaniarrak, eta denak amateurak, prestatze-lan eskerga egin ondoren (2 entsaio astean, irailetik maiatzera). Lan horretan, *Bittori* izan zen Ruth, pertsonaia nagusietako bat, eta antzezpen-zuzendariaren lanak ere egin zituen.



Tangoka espektakuloko taldea, entsaio batean (argazkia; Mari-sol Yabel; KRONIKAN argitaratutako argazkia, 2002-05-18)

RUTH, ZUZENDARI ARTISTIKOA.

2004tik 2019ra bitarteko preludioen batean.

Hernaniko Preludioa irailean-urrian jartzen da martxan. Bilerak lehenbizi, egitaraua adostu eta osatzeko. Prestatze-lanak geroago, partiturak parte-hartzaileei helarazteko. Talde bakoitzak bere lana bere kabuz prestatzen du, eta maiatzaren bukaera aldean hasten dira entsaio orokorrak. Hiru egin ohi dira, guztira, Preludioaren aurreko hiru asteetan, Milagrosan, zehaztu eta doitu beharreko gauzak ondo lotzeko. Entsaio horiek hasteko zain gaudela, berriketa eta zalaparta, eta halako batean, txistu sendo bat entzuten da: *Fiuuuu!!!*. Ruth da, eta isilik geratzen garenean, ongi etorria eman, eta egun horretan zer egin behar dugun azaltzen digu. Entsaioa koordinatzen du, pieza batetik bestera ahalik denbora gutxien galtzeko. Azkeneko entsaioan, soinu-probetarako txanden berri ematen digu. *“A, eta beltzez jantzita, ez ahaztu!”*.

Hurrengo bi egunetan, neurri batean, Plaza edo Atsegindegi Ruthen “etxe” bihurtzen dira, hor ibiltzen baita muntatze-lanak ondo doazela zaintzen. Emanaldirako prestatu dituen ikus-entzunezkoak ere probatuko ditu. Emanaldiaren egunean, soinu-probak gainbegiratzen ibiliko da, eta aurkezleekin egongo da, gidoia berrikusten. Bide batez, aurkezle bikainak ditugu Preludioan, eta doinutik doinurako trantsizioak ederki janzten dituzte. Oso ondo moldatzen dira oholtzan, eskarmentu handia dute-eta. Urte asko daramatzate Preludioa aurkezten, bistakoa da gogoko dutela, eta badakite alaitasun hori jendeari transmititzen.

Soinu-probak bukatutakoan, bokata bat jango dugu denok, eta 22:30ean, oholtzara. Amaitzean, *Mendirik Mendi* eta *San Joan Martxa* doinuen ondoren, aurkezleek taldeak, zuzendariak, artista gonbidatuak eta gainerako parte-hartzaileak aurkeztuko dituzte, txalo artean, eta bukaeran, “... eta zuzendari artistikoa, *Ruth Martin!*” esango dute. Arin sartuko da Ruth oholtzan, ezkerreko aldetik, ikusleei agurra egingo die, eta bizkor-bizkor joango da atzerantz, gainerako zuzendarien ondoan jartzeko.

Ederra zen “*Fiuuuu!!!*” horren soinua.

Hernaniko Preludioaren zuzendari artistikoa izan zen Ruth 2004tik aurrera. Hitz potoloak inondik inora. Hori zer ote den galdetu zioten Hernaniko KRONIKAK argitaratutako “*Ruth Martin, Preludioko zuzendari artistikoa*” elkarrizketan, eta hauxe erantzun zuen: “*Nik ulertzen dudan bezala, zuzendari artistikoak ahal duen neurrian, abestiak jantzi egin behar ditu eta Preludioari lotura edo hari bat eman behar dio. Abesti bakoitza jantzi egin behar du alderdi artistikotik, alegia, argiak, irudia eta abar jarri. Aurkezlearen gidoia ere egin behar du*” (1). Agertokitik kanpo egiten den lana, agertokikoa ondo atera dadin laguntzeko, alegia.

Preludioaz gain, beti prest zegoen horrelako lanetan laguntzeko. Bat aipatzearren, Ttarlakoek taldearen 25. Urteurrena (*Ttarla 25 urte*) ospatzeko antolatutako emanaldian parte hartu zuen (2).

1.- Ikusi elkarrizketa osoa hemen: <https://kronika.eus/urumea/1570442779008--81z>.

2.-Ttarla 25 urte dokumentalean ematen da ospakizun horren berri (Bira Produzioak; hemen ikus daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=Txp0eMgMtxM>).

RUTH, IDAZLEA.

2021eko iraila

2013ko iraila. “*Bergarako Idazle Eskolan eman dut izena*”, esan zidan Ruthen igande goiz batean, gure ohiko txistu-kalejira bukatu ondoren. “*Zu UNEDen ibilia zara, erakutsiko al didazu bidea?*”. Nik, baietz, nola ez, eta hurrengo igandean joatekotan geratu ginen, kalejira ostean. Autopista hartu eta Bergarara iristean, ba, aparkatzeko nondik norakoak: “*Saiatu hemen lehenbizi; lekuri ez badago, probatu hor, eta gero, beste kale horretan. Inon ez badago, ba, beste buelta bat, txokoren bat aurkitu arte*”. Aparkatu, San Martin de Agirre plazara hurbildu, eta “*Hauxe da lekua*”. Eraikin monumentala kanpotik, baina oso abegikorra barrutik. Hor daude Idazle Eskola, bai eta UNED eta ikastola bat ere (Aranzadi Ikastola). Zerbait mende darama eraikina irakaskuntza-ikaskuntzako lanetan, eta ostiral arratsaldeetan eta larunbat goizetan bertan sartuz gero, zerbait ikasten hasteko gogoia piztuko zaizu segur aski, hango giroa eta jendearen joan-etorriak ikustean. Gero, Bergarako *errelleno* famatuak zer gozo-dendatan hartu behar diren erakutsi, film ospetsuko Etxebestetarren etxapeko irlandarrean bokata bat jan, eta buelta Hernanira. Goiz polita.

Bi urte geroago, argazki bat iritsi zitzaidan telefonora: Ruth beste hiru ikaskiderekin, alai-alai, Idazle Eskolako diploma eskuetan. Handik gutxira argitaratutako testu baten aurkezpenean, hauxe idatzi zuen: “*Hernaniarra. Antzerki nahiz dantza tailerrak zuzentzea du lanbide, eta istorioak asmatzea dibertimentu. Idazle Eskolarainoko bidaien falta sentitzen*”.



Ruth, Ttarlakoekin, taldearen 25. urteurrena ospatzeko emanaldia prestatzen.

Hitzen sukaldari



Sutan da eltzea, sukaldaria lanean.

Egosten jarri ditu jakiak, gaur okela eta barazkiak.

Atzo arraina, herenegun untxia, eta bihar, biharkoa, ea nolakoa duen gogo.

Errezeta zaharrak ala berriak? Zergatik aukeratu? Biak.

Nitrogeno hotza ala ikatz beroa? Iragana, oraina eta geroa, guztia da oparoa.

Baditu platertxo, lapiko eta ontziak; baditu sardexka eta burruntzaliak.

Halako jakia halako tresna, eta tresnarik ezean, behatza sartzen du eltzean.

Sutan da eltzea, sukaldaria lanean.

Pintxo, errazio, menu eta ezkontzak.

Otordu luzeak eta motzak; batzuk gozoak, besteak mingotsak.

Tankera, zapore eta makina kolore.

Entzun saltsak nola egiten duen "plup".

Sortu ala egokitu? Biak, zergatik hautatu?

Teknika ala sena? Buruak gidatu eta bihotzak lantzen duena.

Baditu ausardia, jakingura eta kopeta, baditu sentimendu eta gogoetak.

Halako gatazkak, halako irtenbideak.

Eta irtenbiderik ezean, beste jakiekin jarraitzen du lanean.

Jatorduaren ostean, izan denaren oroitzapena eta testamentua:
paperean dotore idatzitako menua.



Sutan da eltzea, idazlea lanean.

Egosten ipini ditu hitzak, gaur bi gazteen bizitzak.

Atzo poesia, herenegun antzerkia, eta bihar, biharkoa, ea nolakoa duen gogo.

Istorio zaharrak ala berriak? Zergatik aukeratu? Biak.

Galdera ala erantzuna? Lehen datorkiona.

Baditu puntu, koma eta parentesiak, baditu hitz eta esaldiak.

Halako ideia halako idazkera. Eta zer esanik ezean, hitzekin jarduten da jolasean.

Baditu bizipenak, bereak eta edonorenak.

Badu bidean oztoporik, bizitzak, hezkuntzak eta bere buruak jarritakorik.

Baina amaitzerakoan, badu beste ezerk eskaintzen ez dion irrika eta bakea;
horrela ulertzen du idaztea.

Aske ote den galderari - **ez** - erantzuten dio berak - **ez bai dut inoiz aski** -.

Hitzak: Ruth Martín Apezetxea

Marrakizak: Larraitz Mendiabale Apezetxea

hasia da jada". Oroitzapen ederrak zituen bertan emandako denboraz.

Gerora sortutako pertsonaietatik bat nabarmen-tzekotan, Nati aipatu behar, nahitaez, ordu asko eta asko eman zituen-eta haren istorioa idazten. Noiz edo noiz, "Zertan dabil Nati?" galdetzean, "Hernanin errentan hartzeko etxe bila dabil" erantzuten zuen, edo "Plazako etxe honetan jarri da bizitzen", edo "Pixka bat abandonatuta daukat, lanpetuta ibili naiz-eta beste gauza batzuekin". Hortxe utzi digu istorio hori, bere lanak bukatuta, eta orain, guk geuk esan nahi diogu, "Ruth, inprentarako bidean jartzen ari gara Nati; lasai egon, ondo zainduko dugu-eta".

Idazle-lanetan ere aritu zen Ruth. Oso gaztetatik gainera: 9 urte zituela, Hernaniko Kimu Alai elkarteak antolatutako idazketa-lehiaketa bat irabazi zuen, 8tik 11 urtera bitartekoen kategorian, euskarazko modalitatean. Gaia: Gabonetako tradizioak. Gerora, hainbat testu prestatuko zituen antzerki-tailerretarako, Preludioko aurkezpenetarako eta abarretarako, eta azken urteotan, buru-belarri zebilen bere testuak sortzen. Eta hor ere, gauzak ahalik ongien egiteko grina. Bergarako Idazle Eskolako graduondokoa egin zuen 2013ko eta 2014ko ikasturteetan, eta hortik aurrera, bi lane-kin ibili zen batez ere: Xx ipuin-bilduma eta *Sagararak eta sakelak* eleberria. Xx lanean, 13 emakume bildu zituen, bizitzako egoera desberdinetan, bakoitza bere moduan aurrera egiteko ahaleginean. *Sagararak eta sakelak* eleberrian, berriz, Natividad Elozegi Villabona dugu protagonista, Nati. Eleberri apur bat kostunbrista, apur bat dickensianoa, eta erabat hernaniarra, XX. mendeko lehenbiziko hereneko Hernani baita kontatzen dizkigun gertaeren eszenatoki nagusia. Hernaniko kaleak, erruki-etxea, Tilosetako dantzaldiak, Donostiarako tranbia, Leokako labaderoa... behin eta berriz ageri dira lan horretan. Eleberrirako, hain zuzen ere, Eusko Jaur-laritzako sorkuntza-beka bat lortu zuen 2019an.

Amaitzeko, hona hemen Bergarako Idazle Eskolako www.idazten.com webgunean Ruthi buruz ageri diren aipamen batzuk:

"[...] Sortzaile garbia zen: antzerkia, dantza, eta musika zerion alde guztietatik. Erritmo hori oso garbi ikusten da gure webgunean argitaratutako lanetan.

Arrazioa eta antzerkia idatzi zuen batez ere. Ipuin-bilduma bat eta nobela bat utzi du argitaratu gabe. Azken honek Hernanin 1914-1931 bitartean Hernanin bizi den Nati du protagonista. 2021. urtean argitaratuko dute bere lagunek.

Beti gogoratuko ditugu bere sormena, indarra eta irudimena".

Beste atal batean:

"Webgune honetan argitaratutako lanez gain hainbat antzerki-tailerretan aritu zen, eta osatuta utzi

zituen ipuin-bilduma bat eta nobela bat, Eusko Jaur-laritzako sorkuntza beka jaso zuena.

Nati, umezurztegi bateko neska baten bizipenetan oinarritzen da nobela, eta 1914-1931 bitarteko al-dian kokatzen du Hernanin, oso ondo dokumentatu zuen garaian. Bere hainbat lagunek 2021ean argitaratzeko asmoa dute.

Gure eskolakide Ruthek askotan hizpide izaten g-enuen idazkuntza eta sukaldaritza lotu zituen Hitzen sukaldari lanean. Irudiak Larraitz Mendible Apezte-xeak jarri zituen. Guri, berriro, geure zentzumen guztiez eta gure oroitzapenez dastatzea dagokigu".

ERREFERENTZIAK Artikuluak eta elkarriketak

- "Tangoka espektakuluak Biteri bete egingo du gaur estreinaldian", KRONIKA, 2002ko maiatzak 18; 2021eko urriaren ikusia (https://kronika.tok-md.com/pdf/maiatzak_18qxd_PC3A1gina_1.pdf).

- "Goizetik Hernaniko Txistulari Bandak zuzendari berria du", KRONIKA, Libe Murua, 2019ko ekainak 24; 2021eko urriaren 2an ikusia (https://kronika.eus/komunitatea/libe-murua-masid_549/1570465425726-goizetik-hernaniko-txistulari-bandak-zuzendari-berria-du).

- "Agur, Goenkale!", KRONIKA, 2015eko martxoak 21; 2021eko urriaren 2an ikusia (<https://kronika.eus/hernani/1570448757993-agur-goenkale>).

- "Ruth Martin, Preludioko zuzendari artistikoa", KRONIKA, 2009ko ekainak 13; 2021eko urriaren 2an ikusia (<https://kronika.eus/urumea/1570442779008-812>).

- "Hernaniar sena oinarri, 25 urtez", Miguel Mari Lizartza, Joxe Ramon Ber-rondo eta Ruth Martinekin egindako erreportajea, Preludioaren 25. urteurrena zela eta; KRONIKA, 2018ko ekainak 16; 2021eko urriaren 16an ikusia (<https://kronika.eus/hernani/1570461653957-hernaniar-sena-oinarri-25-urtez>).

- Ttarla 25 urte dokumentala (2018). Bira Produktzioak (<https://www.youtube.com/watch?v=TxpoeMgMtxM>, 2021eko urriaren 17an ikusia).

- San Joan jaietako XXV. iragarpen kontzertua, 2018ko Preludioa (<https://www.youtube.com/watch?v=H5PtUwY9f3c>, Bira Produktzioak grabatua; 2021eko urriaren 17an ikusia).

Antzezlanak

- Eta Maria, hiru aldiz amapola, Maria antzezlanaren testua. Maite Agirre, 1997. (<http://mikelmartinez.eus/wp-content/uploads/2018/02/maria.pdf>)

Sorkuntzako idazle-lanak:

- Sagararak eta sakelak eleberria (argitaratzeko bidean). 2019an Eusko Jaur-laritzaren sorkuntza-beka jasotako lana.

- Xx ipuin-bilduma (argitaratzeko bidean).

- "Hitzen sukaldari", www.idazten.com webgunean argitaratua, 2014ko apirilak 23; 2021eko urriaren 2an ikusia (<http://www.idazten.com/index.php/eu/idazlanak-mainmenu-476/solas-eta-jolas/1878-martin-apezetxea-ruth-hitzen-sukaldari-solas-eta-jolas>).

- "Esazu hitz bat eta sendatuko naiz", www.idazten.com webgunean argitaratua, 2014ko abenduak 31; 2021eko urriaren 2an ikusia (<http://www.idazten.com/index.php/eu/idazlanak-mainmenu-476/antzerkia/1956-martin-apezetxea-ruth-esazu-hitz-bat-eta-sendatuko-naiz>).

- "Berbenetan, dantza", Zazpika aldizkarian argitaratua (816 zk. 22.-23. or., 2014ko irailak 14; <https://es.calameo.com/read/00269896965f90413131f>), bai eta www.idazten.com webgunean ere, 2014ko irailaren 19an; 2021 urriaren 2an ikusia (<http://www.idazten.com/index.php/eu/idazlanak-mainmenu-476/narrazioak-65333/1951-martin-apezetxea-ruth-berbenetan-dantza-narrazioak>).

- "Eltzekoari bueltak", Zazpika aldizkarian argitaratua (767 zk. 22.-23. or., 2013ko urriak 6; <https://es.calameo.com/read/002698969874d18c9dcad>), bai eta www.idazten.com webgunean ere, 2014ko uztailearen 10ean; 2021 urriaren 2an ikusia (<http://www.idazten.com/index.php/eu/idazlanak-mainmenu-476/narrazioak-65333/1919-martin-apezetxea-ruth-eltzekoari-bueltak-narrazioak>).

- "Camilo eta taxonomistak", Administrazioa euskaraz aldizkarian argitaratua (88 zk. 29-30. or., 2015).